

BIZKAIKO GARDENTASUNAREN INGURUKO ERREKLAMAZIOEN BATZORDEAREN

2016 ETA 2017ko EKITALDIETAKO MEMORIA

I.- AURREKARIAK.

1.1.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen arautegia.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2006 Foru Arauak (aurrerantzean, "Gardentasunaren Foru Araua" berdin "1/2016 Foru Araua") IV. tituluaren hauek arautzen ditu: gardentasunaren arloko organo eskudunak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundearen erreklamazioen ebazpena.

Zehatz-mehatz, foru arau horren 27. artikulua eta hurrengoek arautzen dute Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea, eta badiote batzorde hori kide anitzeko organo independente bat dela, autonomia funtzionala duena, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikita dagoena, aurrekontuei eta baliabide materialei dagokienez.

Batzorde hori bada, 1/2016 Foru Arauaren 27. eta hurrengo artikuluetan eta hitzaurrean berean zehazten den legez, organo independente bat, autonomia funtzionala duena, eta haren arduren artean, besteak beste, hauxe dago: informazio publikoa eskuratzeko eskubidea espresuki edo presuntzios ukatzeagatik aurkeztutako erreklamazioak ebaztea; batzordea funtzionarioek bakarrik osatzen dute, betiere Administrazio Publikoaren jarduna alderdigabea eta objektiboa dela bermatzeko.

1/2016 Foru Arauaren IV. titulu horretan ezarritakoa garatzeko eta, bereziki, arau hori foru dekretu baten bidez garatzeko 27.1 artikuluan dagoen garapena egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia (aurrerantzean, 128/2016 Dekretua").

1.2.- Jardueren urteko memoria egitea justifikatzen duten arrazoiak.

Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen eginkizunak honela jasotzen dira zehatz-mehatz 1/2106 Foru Arauaren 29. artikuluko 1. apartatuan:

- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea espresuki edo presuntzios ukatzeagatik aurkeztutako erreklamazioak ebaztea.
- Arduradun publiko eskudunei eskatzea diziplinazko espedienteak zabaltzeko, foru arau honek gardentasunaren arloan ezarritako betebeharrak ez direla betetzen erakusten duten zantzu sinesgarriak daudenean. Txosten bidez egiaztatu behar dira zantzu horiek.
- Batzordearen jardueraren urteko memoria egitea. Lurralde Historikoko Batzar Nagusietako batzorde eskudunean aurkeztuko da memoria hori. Gardentasunaren arloko Eskarietarako Batzordeak izenda dezan pertsona bertaratuko da batzorde horretan memoriaren berri emateko.
- Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendaritza-organoren eskudunekin lankidetzan aritzea, hala dagokionean, foru erakundearen eta foru-sektore publikoko erakundeetan gardentasun-politikak sustatu eta bultzatzeko.



Era berean, 128/2016 Foru Dekretuaren 18.k) artikulua adierazten du Batzordearen Osoko Bilkurari dagokiola *“bere jardueren urteko memoria bat prestatzea”*.

Horrenbesterekin, aurreko artikuluetan ezarritakoa betetzeko egin da memoria hau, zertarako eta ondorik Bizkaiko Lurralde Historikoko Batzar Nagusien batzorde eskudunari aurkezteko.

2.- 2016ko EKITALDIKO JARDUEREN MEMORIA.

2.1.- Batzordeko kideen izendapena.

1/2016 Foru Araua eta 128/2016 Foru Dekretuan indarrean jarri eta gero, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 2016ko urriaren 18ko erabaki baten bidez (gai-zerrendako seigarren gaia) izendatu ziren Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen kideak, hauek direnak:

1. Titularrak:

- María Barrena Ezcurra andrea.
- Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia andrea.
- Iñigo Alvear Lecue jauna.

2. Ordezkoak:

- Juan Carlos González Olea jauna.
- César Alonso Campo jauna.
- Begoña Martínez López andrea.

Izendapen horiek iragarki gisa argitaratu ziren, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko urriaren 24ko alean, bai Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren atarian (izan ere, atari hori sortu zen, 1/2016 Foru Arauaren 14. artikuluan ezarritakoa betetzeko).

2.2.- Batzordea eratu eta haren karguak izendatzea.

Behin aurreko apartatuan zehaztutako izendapenak egin eta gero, izendatutakoek batzar bat egin zuten 2016ko azaroaren 21ean, eta bilera hartan erabaki hauek hartu ziren:

- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordea eratzea, 1/2016 Foru Arautik eta 128/2016 Foru Dekretutik lehen zehaztu diren artikuluetan xedatutakoaren arabera.
- Karguak batzordearen barruan banatu ziren jarraian zehaztuko den moduan, eta 128/2016 Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritako ordezkari-araubidea ezarri zen:
 - Batzordeburua: María Barrena Ezcurra andrea.
 - Batzordekidea: Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia andrea.



- Idazkaria: Iñigo Alvear Lecue jauna.
- Batzordearen jardunbidea diseinatu eta planifikatu zen; horri buruz erabaki hauek hartu ziren:
 - Batzordearen bilera eta eztabaidetan parte hartuko zutela haren kide legez izendatuta zeuden pertsona guzti-guztiek, bai titularrak zirenek, bai ordezkioak zirenek, batzordearen eraketa eta bera benetan abian jartzeko behar zen besteko denboran. Era berean, batera jarduteko araubide horrek kanpo-proiektzioa ere iritsiko du, berbarako, Bizkaiko Batzar Nagusietako agerraldietara joatea, beste administrazio publiko batzuetan baliokideak diren batzordeetara agertzea edo Datuak Babesteko Euskal Bulegora agertzea.
 - Batzordearen bilerak egiteko bi hilabeteko maiztasuna ezarri zuten, nahiz eta presaka beste bilera batzuk egin ahal izan.
 - Batzordearen eginkizunak egiteko beharrezkoak ziren tresna informatikoak abian jartzea eskatu zuten.

2.3.- 2016ko ekitaldian zehar aztertu eta ebatzitako erreklamazioak.

2016ko ekitaldian zehar ez zitzaion ezein erreklamaziorik aurkeztu Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari.

3.- 2017ko EKITALDIKO JARDUEREN MEMORIA.

3.1.- Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen bilerak.

2017ko ekitaldian zehar, eta batzordea eratzeke egin zen bileran bilkurak egiteko ezarritako araubidea kontuan hartuta, aldiari-aldiari egin dira bilerak, zertarako eta batzordearen jardunbiderako, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren beste organo batzuekin harremanak izateko oinarritzko arauak ezarri eta sendotzeko. Bai eta batzordearen eginkizunen garapenari eragiten dioten beste gai batzuk lantzeko ere.

Horrela, ondorengo jardunak egin dira:

- Batzordeari aurkeztu beharreko erreklamazio eta salaketen formularioak egin dira.
- Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritza Nagusiak aurkeztutako gaiak aztertu eta ikertu dira, bai batzordearen eginkizunei dagozkienak, bai indarrean dagoen araudia oinarri harturik haren eskumeneko gaiei dagozkienak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko beste sail batzuek aurkeztu dituzten gaiak eta zalantzak aztertu eta ikertu dira.
- Era berean, 1/2016 Foru Arauaren lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoa betetzeko, batzordea Datuak Babesteko Euskal Bulegoarekin batzartu da, lankidetzaren mekanismoak ezartzeko, betiere nork bere eskumenen eremuan barruan jardun-irizpideak hartze aldera, dela gardentasunaren eremuan, dela datu pertsonalak babesteko eremuan. Lankidetzaren iraukorra bideratu nahi da; horretarako, aldiari-aldiari egingo dira bilerak, eta aurrekusten da bilera horietan Arabako eta Gipuzkoako foru-aldundietan baliokideak diren organoek parte hartuko dutela.



- Gardentasunaren eta datu-babesaren arloko foro eta bileretara agertu dira.

3.2.- 2017ko ekitaldian zehar aztertu eta ebatzitako erreklamazioak.

2017ko ekitaldian zehar erreklamazio bi aurkeztu zitzaizkion Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeari.

Gardentasunaren inguruko erreklamazioak.

- Lehenengo erreklamazioa honengatik aurkeztu zen: Bizkaiko Foru Aldundiari informazio publikoa eskuratzeko aurkeztu zitzaion eskabidea administrazio-isiltasunaren bidez ezesteagatik. Erreklamazioa aurkeztu ondoren, eta araudi aplikagarriak ezarritako epetik kanpo, eskabidea ebatzi egin zuen zuzendari nagusi eskudunak, eta eskatzaileari jakinarazi egin zitzaion; hori ez ezik, eskatzaileak ez zuen adierazi ebazpenarekin ados ez zegoenik; hori dela eta, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak erreklamazioa baiestea ebatzi zuen eta administrazio-espeditentea artxiba zedila adierazi.
- Bigarren erreklamazioa honengatik jarri zen: Bizkaiko Lurralde Historikoko udal bati informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskabide bati emandako erantzunagatik.

Aurrekoari dagokionez, kontuan hartu behar da Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen duela batzorde horri dagokiola Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta euskal sektore publikoko gainerako erakundeen berriazko nahiz ustezko ukatzeei buruz aurkeztzen diren erreklamazioak ebatzea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 24. artikuluan araututako informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzearen arloan xedatutako aurkaratze araubidea aplikatuz.

Aurreko artikuluan xedatutakoa oinarri harturik, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak erreklamazioa ez onartzea ebatzi zuen, zergatik eta erreklamazio horren xedea udal bati aurkeztutako eskaera baten ustezko ezestea zelako.

Bilbon, 2018ko urtarrilaren 22an.

BATZORDEKO TITULARRA

ORDEZKO BATZORDEKIDEA

Sin.- Amaia Zurbanobeaskoetxea Larraudogoitia

Sin.- Juan Carlos González Sin.- César Alonso Campo

ORDEZKO BATZORDEKIDEA

ORDEZKO BATZORDEKIDEA

Sin.- Begoña Martínez López

Sin. César Alonso Campo

LEHENDAKARIA

IDAZKARI TITULARRA

María Barrena Ezcurra

Iñigo Alvear Lekue